Dena dago bare
haur bat ordez,
● 3 datozen arte.

Gauza serio jartzen denean,
benetan erantzuten duen
bankua behar duzu.

kutxabank
Benetan.



24. KORRIKA
EUSKARA GARA

Euskararen garra pizteko garaia

Gasteizera sartzeko atarian, Arabako Errioxa, Mendialdea eta Lautadako paisaiak zeharkatu ditu 24. Korrikak; euskaltegietako ikasleen, euskara lehen hizkuntza dutenen, kanpotik etorri direnen, arabar petoen eta arabar berrien eskuetan doa euskararen lekukoa, helmugara.

Testua: **Estitxu Ugarte**. Argazkia: **Juanma Gallego**

Martxoaren 27an sartuko da Korrika Gasteizen, gaueko bederatziak aldera dena ondo bidean. Ordurako lurraldeko kuadrilla guztiak zeharkatu eta milaka herritarren bultzadaz ibiliko da euskararen aldeko ekimena. Astelehenean, Arabako Errioxa, Arabako Mendialdea eta Lautadako txokoak zeharkatu ostean, Araban sartuko da berriz ostegunarekin, Artziniegatik hain zuzen, 23:13ean, eta goizaldean zeharkatuko ditu Aiaraldeko herri nagusiak, Amurrio (00:47) eta Laudio (03:21). Bertatik Bizkaira sartuko da, eta ostiral eguerdian itzuliko da berriz Arabara. Gorbeialdean, Gopegin, 12:49ean espero dute, 13:47ean Murgian eta 14:40ean Izarran. Añanako Kuadrillan lehen urratsa Kuartangon egingo du Korrikak, 15:52ean sartuko da Zuhatzu Kuartangon, eta bertatik Subilla Morillaserako norabidea hartuko du. Langraiz Okara 17:19ean iritsiko dira euskaltzaleak, eta hortik Argantzonera eta Trebiñura bidea jarraituko dute. Zaldiarango gaina igo eta gero sartuko sartuko da Korrika Gasteizen, eta auzo gehienak igaro ostean, Betoñutik aterako da eta hiriburua atzean utzita, gaua ondo sartuta iritsiko da Legutiora. Herria zeharkatu ostean, Debagoienera abiatuko da.

Euskara gara lelopean ibiliko den hamaika egunetan, 3.436 lekuko hartze izango dira 24. Korrikan zehar, eta 2.175 kilometro izango ditu ibilbideak. Aurten bereziki azpimarratu dute benetako lanketa eta konpromisoa behin Korrika igarota datorrela. "Asmo handiko helburuekin abiatzen dugu lasterketa, baina ekimena bera labur geratzen zaigu askotan, eta Korrikak irauten duen 11 egunetatik harago joan behar dugu". Horregatik *Korrikaren 12. Eguna* ekimena abian jarri dute. Horren baitan 65 mintzodromo antolatuko ditu Korrikak maiatzaren 21ean, Euskal Herri luze zabalean. "Helburua ez da hutsala: maiatzaren 21a izan dadila Euskal Herrian euskara gehien hitz egingo den eguna". Halaber, euskara ikasten hasi nahi dutenak animatzeko, eskola bat doan eskainiko dute AEKko euskaltegiek apirilaren 22an.

Martxoak 23

02:06	Moreda Araba
02:25	Oion
03:20	Ekora
05:27	Kanpezu
06:34	Atauri
06:49	Maeztu
07:08	Birgarabarren
07:15	Birgaragoien
07:41	Azazeta
08:18	Egileta
08:48	Dulantzi
09:29	Dallo
10:25	Agurain
11:02	Erdoñana
11:22	Zalduondo
11:46	Araia
12:12	Albeiz
12:27	Ilarduia
12:38	Egino

Martxoak 26

23:13	Artziniega
00:17	Arespalditza
00:47	Amurrio
01:18	Larrinbe
01:58	Bergantza
03:21	Laudio

Martxoak 27

12:30	Etxaguen	17:19	Langraiz Oka
12:37	Murua	18:05	Argantzon
12:44	Larrinoa	18:37	Añastro
12:49	Gopegi	19:03	Trebiñu
13:07	Maurga	20:34	Berrostegieta
13:47	Murgia	20:53	Gasteiz
14:06	Ametzaga	00:13	Dura
14:40	Izarra	00:27	Mendibil
15:18	Anda	00:53	Luku
15:52	Zuhatzu Kuartango	01:00	Urbina
		01:26	Legutio

Johana, Bea, Izaskun, Rocio eta Josemi ikasleak, aurreko edizioko kilometroa egiten. IZASKUN GARCIA RONCERO

Konpromisoa ere ikasten da

Gasteizko ikasle talde batek Korrikaren edizioetan kilometro bat erosi ohi du, eta horretarako dirua biltzen dute Judimendiko taberna eta lokaletan. 2661. kilometroa egokitu zaie aurten.

JUANMA GALLEGO

Duela hainbat urte euskaltegian euskara ikasteko abenturari ekin ziotenean egin zuten topo Gasteizko hainbat ikaslek Korrikarekin, Gasteizko Jose Mardones kaleko euskaltegian zeukaten irakasle "oso berezi" bati esker. "Korrika zer zen kontatu zigun, bai eta Korrikaren beraren historia ere", oroitu da Izaskun Garcia Roncero ikaslea. "Horren ondorioz, zerbait egiteko gogo askorekin geratu ginen. Eta pentsatu genuen kilometro bat erosi behar genuela, baina ez genekien nola egin ahal genuen hori". Hasiera batean zozketa bat egitea pentsatu zuten, baina gero otu zitzaien babesleak bilatzeko aukera. "Hala, Judimendi auzoko tabernetan hasi ginen, euskaltegiaren inguruan ostiraletan trago bat hartzen genuen tabernetatik,

"KILOMETRO BAT EROSI BEHAR GENUEN, BAINA EZ GENEKIEN NOLA EGIN"
IZASKUN GARCIA RONCERO

hain zuzen. Komentatu genien euskaltegian urte pare bat generamatzan ikasleak ginela, eta kilometro bat erosi nahi genuela". Modu horretan, borondatea eskatzen hasi ziren, eta gutxien ematen zienak 30 euro ematen zizkiela konturatu ziren. "Harritu ginen, kilometroaren dirua hain azkar lortu izanagatik".

Behin dirua lortuta, modu batean edo bestean babesleek ematen zieten diru ekarpena eta konfiantza eskertu beharrean zeuden, eta pentsatu zuten kamiseta batzuk egin behar zituztela. Duela hiru Korrika izan zen hori, eta aurtengoan ere errepikatu dute.

Diru ekarpena ematen duten guztien izenak agertzen dira kamiseta horien atzeko aldean. "Korrikaren egunean gu kamiseta horiekin ateratzen gara".

Kolaborazio handia

Babesle bakoitzari kamiseta bana ematen diote, eta Korrikaren aurreko egunetan dirua jarri duten lokal guztietan banatzen dituzte, haiekin korrika egitera gonbidatuz.

"Judimendi auzoko jendearen kolaborazioa harritzekoa da, aurten ere kilometrorako dirua oso azkar lortu dugulako", pozik azaldu da Garcia. Irrikan daude ostirala iristeko. "Ea, lekukoa hartu behar duzun unea zirraragarria da. Ikusten duzunean badatorrela, eta zeu zarela hartuko duena. Eta lehen urtean, gainera, furgonetako esatariak gure ekarpena zein izan zen azaldu zuen!".

Ostiralean, Santiago eta Jose Mardones kaleen arteko 2661. kilometroa egingo dute, 22:32etan, eta euskaltegiaren aurretik igaroko dira. Harro-harro egingo dute, noski, konpromisoa ere ikasi daitekeela erakutsiz.

Egin zuten lehen Korrikan eguraldi eskasa izan zuten, baina animo handia. I. GARCIA

euskaber
BASERRIKO ZURE ARRAUTZAK
24.korrika aek
Euskara gara
Euskaberetik Korrikan parte hartzera eta euskararen alde egitera animatu nahi zaituztegu.
Martxoaren 23an goizean Agurainen izango gara.

"Oraindik kalanbrea sentitzen dut lekukoa hartzen dudanean"

URTSA ERRAZTI KORRIKAREN SORTZAILEETAKO BAT

Lehendabiziko Korrikaren "logistika eroa" gogoratu du Urtsa Erraztik: GPSrik gabeko koordinazioa, azken unean egindako abestia eta helmugara iritsi ez zen mezu galduaren misterioa.

ANAKOZ AMENABAR

Duela 46 urte abiatu zen lehendabiziko Korrika Oñatitik (Gipuzkoa), eta Urtsa Errazti (Laudio, 1954) izan zen lehen arduraduna. Hari eta egitasmoaren beste sortzaileei aitortza egin diete, eta aurreneko urte haietan bizitakoak gogoratu dituzte.

Korrika gerturatu ahala, urduritasunak agertzen doaz?

Urduritasunik ez. Pozez bizi dut Korrika. Ardura bakarra aurretik izaten da, kilometroa non lotu behar dudan, baina dagoeneko urduritasunik ez.

Aurten non hartu behar duzu Korrika?

Joseba Camporen familiak eta nireak urtero erosten dugu kilometro bat. Joseba Korrikaren sortzaileetako bat izan zen, lagun handia. Eta baita Lourdes Artetxe emaztea ere, Korrikan inurri lana egiten oso trebea. Joseba eta Lourdes hil ziren, baina beren semeak eta alabak jarraitzen dute kilometroa egiten, eta aurten Donapaleuko (Nafarroa Beherea) sarreran izango dugu. Araian ere egongo naiz, Mutualiakook hartu dugun kilometroan –Mutualiako presidentea da Errazti–, eta besteren batean ere bai.

Errazti, azaroko omenaldian. AEK/ KORRIKA

Nola gogoratzen duzu 1980ko Korrika hura, lehendabizikoa?

Garai hartan, ni AEK-ko ekonomia arduraduna nintzen, eta horri lotuta Korrika arduraduna sei bat aldiz. Urduritasun askoko momentua gogoratzen dut, orduan bai. Kobentzituta geunden ondo bukatuko genuela, jende asko zegoelako inplikatuta, herri eta bilera ugaritan, euskara talde ugaritan, eta babesa bazegoen, baina zalantzak ere bagenituen. Bukatuko zela ziur bai, baina nola bukatuko zen ez genekien. Eta, zorionez, arrakastatsua izan zen.

Prestaketa lan handia izan zen, ezta?

Bai. Lehenengo, kanpainaren prestaketa. Korrika egitea erabaki arte, denbora bat eman genuen zer eta nola egin pentsatzen, aukera desberdinak mahai gainean aztertzen... Eta, gero, jendea konbentzitzen, batez ere AEK-ko jendea. Irakasleak eta ikasleak konbentzitu behar genituen Korrika egitea posible zela, pixkat burutik geundela pentsatzen zutelako.

Hauek nora doaz, pentsatuko zuten...

Bai, bai. Hori batek baino gehiagok pentsatu zuen. Baina egin genuen, bukatu genuen, eta ondo bukatu gainera. Geroztik ez da arazorik egon jendea konbentzitzeko.

Lasterketa handi bat egiteko ideia norena izan zen?

Ideia, nagusiki, Josepe Zuazorena izan zen. Talde bat bildu ginen, bost lagun, eta Zuazok ekarri zuen proposamen hori aukera bezala. Bilboko Club Deportivok egiten zuen Bizkaian zehar errelebo karrera bat, egun desberdinetan, orain batzuek Santiago bidea egiten duten moduan. Zerbait desberdina egin nahi genuen, horretaz konbentzituta geuden denok; ordura arte, eta gero ere bai, gehienetan kanpainak jendea biltzekoak izaten dira, Euskal Herri guztia deitu, baina leku jakin batera joateko. Eta gure ideia kontrakoa izan zen, kanpaina leku guztietara eramatea. Eta, ideia guztien artean, Josepek ekarri zuena gustatu zitzaigun, horrekin jarraitu genuen. Hasieran ez zen gau eta egun egitekoa, baina logistika horren zaila zela ikusirik, azkenean Korrika ez gelditzea erabaki genuen.

Nolakoa izan zen koordinazio lana?

Kontuan hartu ez zegoela telefono mugikorrik, ez GPSrik, eta ordenagailuak munstro handi batzuk zirela. Ez zen erraza Korrika jarraitzea. Gurutze Gorriaren laguntza izan genuen horretarako. Baimenak eskatzeko, jendearen segurtasuna bermatu behar genuen, eta Gurutze Gorriaren babesa izan genuen. Irratiz konektatuta zeuden beraien artean, eta, bide batez, guk ere horren bitartez egiten genuen jarraipena. Korrikaren bulego bat genuen, eta Gurutze Gorriko zenbait lagun ere izan ziren han txandak egiten, momentuan nondik zihoan edo arazorik bazen jakiteko lanean.

Baimenak eskatzerakoan, ez zenuten trabarik izan?

Ez dut gogoratzen traba handirik. Segurtasuna bermatu behar genuen, noski, eta poliziak ere izango zirela esan ziguten, baina haiek

Korrikaren sortzaileei omenaldia egin zieten azaroan, Oñatin. A ARROITA/ AEK-KORRIKA

nahiko aurretik joatea negoziatu genuen. Baina ez traba gehiegirik. Uste dut hain zoroa zela ideia, trabak baino, kezka galderak zirela beraien partetik. Ezustean hartu genuen jende guztia.

Abestia ere azken momentuan...

Bai! Hori Josebari okurritu zitzaion. Baina asteartean bota zuen, eta Korrika ostiral arratsaldean ateratzen zen. Xabier Amurizarengana jo genuen, eta berak behin baino gehiagotan kontatu du egin dioten enkargurik zoroena izan dela. Nahiz eta bertsolaria izan zen, egun batetik bestera kanta bat prestatu behar zuen, ez da lan makala, eta egin zuen.

Mezuarekin ere izan zen nahasmena lehenengo Korrika hartan, ezta?

Lekukoan mezua sartzeko erabakia ere azken momentuko zerbait izan zen. Korrika Oñatitik atera zenean ez zeukan mezurik. Handik bi egunetara sartu zitzaion, lasterketan zihoala. Eta hor arazo bat izan genuen, lekukoak zulo bat zeukalako erdian; artelan bat zen, ez zegoen horretarako pentsatuta. Gerora, aldatu egin dugu lekukoa; berdina da, baina ez Remigio Mendiburuk egindakoa, Juan Gorritik egindakoa baizik. Kontua da azkenean ez zela Rikardo Arregiren mezua iritsi helmugara lehen Korrikan. Bigarrenean hori bera eraman genuen. Beti egin den moduan, mezuaren ostean AEK-k bere diskurtsoa bota zuen. Eta mezurik ez zegoenez, jendeak esaten zuen aldatu egin genuela mezua, baina ez zen halakorik gertatu. Ez zegoen mezurik. Hurrengoetan beti eraman dira kopiak, eta baita lekuko desberdinak ere, badaezpada. Hainbat kontra izan genituen orduan, zenbait egunkari eta alderdi, helburua gure mezua irakurtzea izan zela esanez, eta ez zen egia. Aitzakia horrekin, kanpaina bat egin zuten Korrikaren kontra, baina bigarrenean gainezka egin zuen babesak. Horregatik kariño handia diot bigarrenari; lehendabizikoari Korrika asmatu genuelako, baina bigarrenari boikota gainditu genuelako.

Espero zenuten Korrikak halako ibilbidea egitea?

Ez, ez genuen imajinatzen halako oihartzunik izango zuenik. Irudimena genuen, baina ez hainbesterako. Eta, gaur egun, hunkitu egiten nau ikusteak Korrika lekukoz lekuko aurrera doala eta bidean gazte ugari biltzen direla. Beti halako kalanbre bat sentitzen dut lekukoa hartzen dudanean, aurretik beste 23 Korrikatan milaka lagunek hartu dutela jakinda. Etorkizuna hor dago, gazteengan, korrika ondo egin dezaketen artean, ze nik nire kilometroa amaitu gabe utzi behar izaten dut [barrez].

Zer aldatu da lehen Korrika hartatik?

Orduan egiten genuen aldarrikapenari eusten diogu, euskaraz bizi nahi dugulako, eta oraindik euskarak oztopo ugari dituelako. Euskaldunagoa da gizartea gaur egun; ez beharbada euskaltzaleagoa, baina bai euskaldunagoa. Baina erabileran dugu arazoa, jende askok dakien arren, gutxi erabiltzen duelako. Korrika egun hauek ilusioa pizten dute, eta erabilera bultzatu, baina urte osora eraman behar da ilusio hori. Bidean oztopoak ere baditugu, eta ez gutxi. Besteak beste, maila judizialeko batzuk; botere judiziala da euskarak duen etsairik nagusienetako bat gaur egun. Nahi izan arren, euskaldun batek ezin du euskaraz bizi gaur egun. Egunerokoan ikusten dugu, ospitalean artatu behar zaituztenean, esate baterako... Eta Korrikak horren kontrako irakaspena uzten digu. Euskaraz bizi nahi dugula, eta presa daukagula. Amurizak esaten zuen moduan, "ez gero, orain baizik". ▬

artepan

ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL
Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

BAKARRIZKETAK
ANTZEZLANAK
FAMILIARRAK
EKOIZPENAK
MANAGEMENT
www.ttipia.eus
TTIPIA

Mendia Optika
www.mendiaoptika.eus

TXAPELDUN
KUTXI-GASTEIZ

NEURTU 5 PAUSOTAN
zure erakundearen hizkuntza egoera
https://l.eus/auto-diagnostikoa
bai euskarari elkartea
LAN ETA BIZI EUSKARAZ

Zubi lana egiten jarraitzeko

Kilometro asko egingo ditu ALEAk, Korrika lurralde osan jarraitzeko, baina 2673.a bereziki kutuna izango da, aurten B-ALEAren esku egongo baita. Hedabideak AEK-rekin kolaborazio hitzarmena berritu du.

AEK eta ALEAren arteko kolaborazio hitzarmena berritu dute aurten bi erakundeek Gasteizko Arana euskaltegian. ALEA

JUANMA GALLEGO

Inoiz Korrikaren lekukoa hartu duten guztiek soberan dakite zein berezia izaten den eskutik eskura pasatzeko une zirraragarria, kirioak dantzan jartzen direnekoa.

Milaka lagun ari dira sentsazio hori bizitzen egunotan. ALEAren kasuan, aurten Laura Galar eta Haizea Arana kideek lehen eskutik biziko dute une berezi hori, B-ALEAko aurkezle trebeek Lazarraga eta GEU elkarteekin batera ALEAk partekatzen duen kilometroan lekukoa eramateko ardura eta ohorea izango dutelako.

Ostiral gauean izango da hori, 23:00ak aldera, Gasteizko Posta kaleko 2. zenbakian. Aurten kilometroen hurrenkeran ez da aldaketarik izango, eta, hortaz, ohi bezala, Arabako euskarazko hedabideari zubi lana egitea egokituko zaio, Gasteizko Udalaren ordezkari baten eskutik jasoko baitu lekukoa, eta, behin kilometroa eginda, Hala Bedi eta Gasteizko Gaztetxearen esku utziko duelako, tarte horretan oreka eta burua galdu gabe.

AEKrekin elkarlana

Horrelako ekimen batek arabar euskaldunentzat izaten duen garrantzi informatiboan oinarritzen da, noski, ALEAk Korrikari egiten dion jarraipen berezia, baina, horrez gain, hedabideak AEKrekin mantentzen duen hitzarmen baten barruan kokatzen da.

Elkarlan honen helburu nagusia euskara lurralde osoan presentzia irabaztea da: AEK-k Korrikaren antolakuntza eta euskalduntzearen motorra martxan jartzen duen bitartean, ALEA Korrikaren bozgorailu lana egiten ari da, jarraipena eskainiz. Besteak beste, AEK-k ALEA ezagutarazten du bere ikasleen artean, eta ALEAk, berriz, AEKren edukiak zabaltzen jarraitzen du.

360º-ko konpromisoa Arabarekin

www.fundacionvital.eus